

Ermuko eskubaloia harrobia Arrateren arrakastaren gakoetako bat

Arrate-Amaña nesken eskubaloia taldea liga nazionalako lehenengo mailan dago. Oraindik ez du partidu bakar bat ere galdu eta bere taldeko lehen postuan dago, Ohorezko Dibisiora igotzeko aukera askorekin gainera. Egoera hau berez aipatzekoa izanik, are gehiago harritzen du kontutan harturik pasaden urtean bertan lortu zuela Arrate-Amañak bigarren mailatik lehenengora igotzea. Hala eta guztiz, ez da ez miraria, eguneroko lan gogor batetan finkatzen baita gertaturiko guztia; eguneroko lanean eta Ermuak duen neska eskubaloizaleen harrobi agortezinean, sei bait dira lehen dibisioan Arrate-Amañak dituen ermuarrak eta bai kadetetan zein jubeniletan beste hainbeste neskek jokatzen dute.

-Zergaitik ote dago hainbeste eskubaloilari ermuar Eibarko nesken taldeetan? Zeintzu eta zenbat zaudete?

-Lehen ekipoan Olga de Miguel, Arantza Bouzo, Josune Sagardui, Marga Alvarez, Arantza Gorritxategi eta Ainhoa Agirregomezkorta gaude. Jubeniletan Idoia, Uxuri, Nuria, Leire, Mery eta Nekane daude eta kadetetan ere beste bost edo sei ermuar dabilta.

Honen zergaitia Ermuan dagoen zaletasunean eta harrobian datza. Ermuan gazteen

mailako eskola txapelketak daude, kadeteen eta jubenilen ekipoa ere badago eta egoera honek faboratzen du gero Arrate-Amaña taldeetan hainbeste ermuar egon ahal izatea.

-Nabaritzen da aldaketarik

"Gure balonmanoa amateurra da, afizionatuak gara eta gizonezkoak profesionalak dira eta dirua irabazten dute".

eskola mailako eskubaloian eta zuek orain zabiltzaten honetan?

-Imagina ezazu. Ikastola garaian goizeko zortziretan entrenatu behar genuen, klaseetara sartu baino lehen, pistarik ez geneukan eta. Orain aldiz, talde haundi bat dugu atzetik, hau iada ez da eskola, astero lau entrenamendu ditugu, federatuta gaude, eta txapelketa maila, partiduak... oso dira ezberdinak. Aldatu ez dena da oraindik ere afizionatuak gara eta ez dugula dirurik irabazten gustatzen zaigun kirol bat praktikatzegaitik.

-Zer nolakoa da gaur egun Euskadiko nesken eskubaloia maila?

-Gure ustetan Euskadik eskubaloian duen maila altua da, nahiko goian gaude. Ohorezko dibisioan, adibidez, bi talde ditugu, Hernani eta Bidebieta. Gero, lehenengo mailan lau

talde gaude, Ereintza, Bilbao, Etxebarriako Kullaga eta gu. Honetaz gain, adibidez, Bidebieta taldea Europa mailan jokatzen ari da eta espero dugu datorren urtean ere berriz Europar aritzeko moduan egongo

dela Ohorezko Mailan goian bait dago.

-Zeintzu dira emakumezko eskubaloia eta gizonezkoen arteko ezberdintasunak?

-Desberdintasun nabariena soldatan legoke. Gure balonmanoa amateurra da, afizionatuak gara eta gizonezkoak profesionalak dira eta dirua irabazten dute jokatzeagaitik. Hortaz aparte, gure eskubaloian aritzeko ere gizonezko-

eta, eskubaloiaz bizi al zaitezke?

-Ez. Eskubaloiaz ezin ginateke bizi, ez behintzat gure maila honetan. Agian emakumezko batzu bizi ahal izango dira Ohorezko Dibisioan, baina ez gurean. Izan ere gure kasuan jokatzen dugu daukagun zaletasunagaitik beste edozer gauzagaitik baino.

-Zer da zuentzat eskubaloia?

-Buruko min haundia, denbora-jate nabaria eta sakrifizio ugari eskatzen duen zerbait, baina baditu ere bere gauza onak. Izan ere, ez ginateke hemen egongo gauza onen eta txarren arteko neurketa balantza gauza onen aldera mugituko ez balitz.

Aldeko gauza hauen artean laguntasuna, ezagutzen duzun jendea, bizitzen den giroa, kirola bera eta dutxa bat hartuta gero sentitzen duzun ontasuna sartu beharko genituzke beste

"Eskubaloia buruko min, denbora jate eta sakrifizio ugari da, baina baita ere laguntasuna, ezagutzen duzun jendea, giroa, kirola bera..."

na baino askoz taldekakoa da, indibidualtasunak ez du garrantzi berezirik blokeoaren joko baita inporta dena.

-Amateurismo kontua dela

hainbat gauzen artean. Egia da, hori ezin ukatu, denbora libre ugari sakrifikatzen dugula astean zehar lau egunez entrenatzeko eta gure asteburuak bi daietan eta partiduetan galtze-

SIRIMIRI TABERNA

Pintxo eta bokatak

Erdiko kale, 11

Bitxitegia

IGANE

VI Centenario, 19 Tfnoa. 17 46 34
48260 ERMUA

ko, eta egia borobila da ere zure bizitzako gauza ugari konprometitzen dizkizula. Baina berriz diogu ez ginatekeela hemen egongo konpentsaziorik ez balego.

-Zeintzu dira denboraldi honetarako helburuak txapelketa mailan?

-Momentuz, gure helburua da igoera fasean sartu ahal izatea. Aipatu behar da Espainia mailan hiru taldetan banaturik gaudela emakumezkoen eskubalo taldeak lehen dibisioan. Talde bakoitzeko lehenengo biak klasifikatu egiten dira igoera faserako eta nahiko genuke Ohorezko Dibisiorako txartela lortu, ahal balitz igoera fasea ere jokatu beharrik izan gabe.

Momentuz ez dugu partidu bat bera ere galdu eta gure taldean lehenak gara. Gainera aurtun igotzeko aukera dexte ditugu beste taldeetako liderrekin neurtu bait gara eta errez irabazi ditugu. Dena den ikusi beharko dugu nola doakigun.

-Nola ikusten duzue emakumezkoen eskubaloia etorkizuna?

-Eibarren behintzat nahiko gordina, behar baino gehiago galtzen ari bait da. Ez da Ermuan bezela, non txapelketak eta honelakoak dauden, eta ez zaie erreza gertatuko harrobia hornitzea. Dena dela, Ermuan ere berdin gerta daiteke, neska gehienek, behin adin batetara ailegatu eta gero kirol egiteari uko egiten bait diote. Mutilen kasuan, aldiz, beti ere kirol egiteko grina hori dute eta federatu bezala ez bada ere beti dabilta futbol txapelketa afi-

zionatuetan, futbito txapelketetan edo eta abarretan.

Eskubaloia kasuan asko dira Oinarrizko Hezkuntz Orokorrean daudenean jolasten ari diren neskak. Gero, hauetatik batzuk bakarrik jarraitzen dute kadete mailan eta askoz gutxiago dira jubenetara pasat-

bertsitate mailan dagoen neska batek kirol ekiporen batean sarturik egotea. Eta ez dugu esaten kirol federatuetan egon behar denik, ezta gutxiagorik ere, baina behintzat mutilek bezela egin beharko genuke eta zaletasunaz bada ere, saskibalo talde batetan, eskubalo

egon bait daiteke.

-Zer esango zeniekete elkarriaz hau irakurriko duten neska gazteei?

-Gure kasua eskubaloia denez ba berau egitea oso dibertigarria dela. Guk, eskubaloia bide dela, gauza asko ikasi ditugu, jende ugari ezagutu dugu



Hauxe da Arrate-Amañako aurtengo talde argazkia.

Jose Luis Calleja

"Momentuz ez dugu partidu bat bera ere galdu eta gure taldean lehenak gara, igotzeko aukera dextekin gainera".

zen direnak edo eta hemendik nagusien ekipoetara pasatzen direnak kirola laga baino lehen.

Honen zergaitiak heziketan eta mentalitatean aurkitu behar ditugu, zoritxarrez oraindik ere arraroa gertatzen bait da uni-


talde batetan, futbito edo beste edozein taldean egonik, herri mailako txapelketak antolatu eta bertan parte hartu. Eta ez du balio esateak honelako txapelketak ez direla antolatzen emakumezkoentzat, gakoa gure aldetiko partaidetasun ezan

eta ikasi eta ikusi egiten dugu gauza berri mordo bat. Kirola eginez, edozein kirol eginez, zure denbora libre modu ezberdin batetan erabiltzen ikasten duzu eta ez gaur egungo gaztediak egiten duen bezela, kafetegietan sarturik. Eta kontutan hartu ez garela ari hitzegiten entrenamenduetaz eta txapelketa gogorrez; gure gomendio bakarra kirolean aritzea litzateke, pena merezi bait du.

Iñaki Moreno

PATXI TABERNA

Gau eta egun
Alde zaharreko betiko taberna



Maite eta Manoli

ILEAPINTZAILEAK

Goienkale, 11 - behea
☎ 17 23 73

